

Desfilean



UXUE APAOLAZA LARREA

Ultraeskuina desfilean dabil, plaza erdiraino ekarri dute karroza, eder sentitzen dira, topera bolu-
mena. Eta hauteskundeak irabazten dituzte. Eta, izututa, geure buruari begira jarri gara. Eta dena gaizki. Azken aldiko inbento guztiak gaizki; nola ez zen azalduko Milei, ezkerra horrela badabil. Eta mundu osoko ezker guztiak gaizki. Eta hasi gara bakoitza bere lekutik iletik tiraka, norbere buruari itxuraz (autokritika), ondo-ondokoari berez.

Migrazioa. Gaizki. Ez gara gaiari buruz ganoraz hizketan ari, eta arazoari ez bazaio behar bezala heltzen, eskuinak eramango du... Eta Hibai Arbidek askatzen du zure eskua iletik berearekin masaileko eder bat emateko: "Ez dut onartzen immigrazioa eskuin muturra geldiarazteko ezkerrek heldu beharreko arazo bat dela dioen diskurtsorik. Immigrazioa ez da arazo bat, punto". Eta feminismoa? Zenbait ezker oso gaizki dabil, programan puntu bat behar lukeena puztu eta alderdiaren eskaparatea emakumez betez, emakumeen intereseko gaiekin tematuta, eta ohartu ere ez horrek ezkertiarrek urrunduko zituela, izan ere, ezkerre zer da klaseez, langile borrokaz ahaztu, eta bazterreko txikikeriei begira jartzen bada. Eta nor ari da ekonomiaz, industriadaz...

Agian, hobe ondokoaren buruko ileak askatu, eta erreakzio faxistak sortu dituztenak txalotu eta babestu: akatsa arrazismoa baita, matxismoa, eta horien aurka-koak zigortzen dituztenak. Soberan beste batzuk daude, eta desfilean dabilta. ●



Euskara

Baxoko ahozkoa euskaraz egin nahi duten ikasleei laguntzeko, ekintza egingo dute ehun bat irakaslek. Soinean ahobizi eta belarriprest txapak eramango dituzte, ikasleei adierazteko "babes osoa" dutela euskaraz mintzatuz gero azterketan.

Kultura

Kike Diaz de Rada hil da, aktore, antzerki zuzendari eta idazle donostiarra. Ibilbide luzeko aktorea, zineman eta telebistan aritzeaz gain Orain antzerki taldearen eta Tanttaka Teatroaren sortzaileetako bat izan zen. 64 urterekin hil da, ekainaren 19an.

Hezkuntza

Nafarroako Gobernuak 2020an agindutako eraikin berria exijitu dute Antzineko Lokiz eskolako familiek. Duela zazpi urte D ereduaren aldeko apustua egin zuten, eta desagertzeko zorian zegoen eskola, txiki geratu da orain. Eraikin berria behar dute.